

Funtsezko jarduerak

KULTUR-MIX Kultur-mix-en jarduera gakoak proiektua ondo funtzionatzeko beharrezkoak diren jarduera nagusiak dira. Jarduera hauek funtsezkoak dira balio-proposamena eskaintzeko, bezeroek babestuta senti daitezen eta taldean harreman sendoak sortu daitezen, bai espazio fisikoan bai ingurune digitalean.

1. Jardueren diseinua eta antolaketa Jarduera hau Kultur-mix-en oinarrizkoa da eta ezin da kanpora atera, negozioaren ezagutza propioaren (know how) parte delako. Honako hauek barne hartzen ditu:

- Jarduera kultural, sozial eta aisialdikoaren diseinua.
- Taldearen kohesioa eta parte-hartzea sustatzeko dinamikak sortzea.
- Jarduerak bezeroen profilerara egokitzea.
- Aurrez aurreko eta online jardueren plangintza.

2. Jarduera presentziala gauzatzea Kultur-mix-en jarduera nagusietako bat bezeroekin harreman zuzena izatea da. Honako hauek barne hartzen ditu:

- Lokalaren barruan egiten diren jarduerak. Aire libreko jarduerak (irteerak, txangoak, bisita kulturalak).
- Taldeen dinamizazioa, bezeroek giro atsegina eta integratzailea senti dezaten.

3. Komunitatearen kudeaketa eta dinamizazioa Kultur-mix-ek ez ditu soilik jarduerak eskaintzen, baizik eta komunitate aktibo bat sortzen du. Honako hauek barne hartzen ditu:

- Bezeroen arreta eta jarraipena. Parte-hartzaileen arteko harremanak sustatzea. Sor daitezkeen arazo edo gatazken konponketa.

4. Plataforma digitalaren / aplikazioaren kudeaketa Plataforma digitala esperientzia presentziala osatzeko erabiltzen da. Honako hauek barne hartzen ditu:

- Online jardueren antolaketa. Bezeroekin komunikazioa eta informazioaren kudeaketa. Aplikazioaren mantentzea (atal teknikoa kanpora atera daiteke).

5. Komunikazioa eta sustapena

Proiektuaren ikusgarritasuna handitzeko funtsezko da. Honek honako hauek barne hartzen ditu:

- - Jardueren eta ekitaldien sustapena.
- - Sare sozialen kudeaketa. -
- Kultur-mix-en balio eta identitatearen komunikazioa.